# Durango Pertsona Nagusiekiko Hiri Adiskidetsuen Munduko Sarean (AGE FRIENDLY CITIES-en)

## Durango en la red internacional de ciudades amigables con las personas mayores

Adinekoekin uri atsegina
Ciudad amigable con las personas mayores

Udalak, Durangoko adineko pertsonen hobekuntzan aurrerapausoak ematen jarraitzen du, izan ere, gure uria Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) ekimena den Pertsona Nagusiekiko Hiri Adiskidetsuen Munduko Sarean onartua izan da.

Ekimen honen bidez, kontuan hartzen da adinekoek gure herriaz duten ikuspegia, adinekoekin eurekin “adeitsuagoak” izateko zer eta nola hobetu behar den identifikatzeko.

Proiektu honen helburua zahartze aktiboa bultzatzea da, udalerriko adinekoei parte hartzeko esparru bat emanez, osasun baldintzak hobetuz eta inguruetako segurtasunak handituz, horrela lortu baitaiteke adineko pertsonen bizi-kalitatea eta, aldi berean, herritar guztiena hobetzea.

Avanzando en la mejora del bienestar de las personas de edad del municipio, la villa se ha adherido a la red internacional de ciudades amigables con las personas mayores, proyecto concebido por la Organización Mundial de la Salud.

El proyecto pretende mirar nuestro municipio desde la perspectiva de las personas mayores, para identificar en qué aspectos y de qué manera puede ser más amigable con éstas.

El objetivo es impulsar el envejecimiento activo mediante la participación, la mejora de las condiciones de salud y el aumento de la seguridad de los entornos, a fin de incrementar la calidad de vida de las personas mayores en particular y en consecuencia, de toda la ciudadanía.

# Adinekoei zuzendutako jarduerak

## Programas municipales dirigidos a las personas mayores

Liburuxka honetan agertzen diren ekintzen bidez, gure herriko adineko guztien behar, eskakizun eta ezaugarriei erantzuna eman nahi dizkiegu, udaleko beste sail batzuetatik nagusiei zuzenduta antolatzen diren jardueren osagarri izanik.

Ekimenak hainbat programa hartzen ditu barruan, gero eta heterogeneoagoa den talde honi eskaintza egokiena egiteko amoz. Gaur egun, gure udalerrian 60 urteko edo gorakoek 6.567 dira (biztanleen % 22,73) eta 80 urteko edo gorakoek % 5,80 (1.668 pertsona), eta horien artean, gutxi gora behera, % 20 bakarrik bizi da. Helburua zahartzaro pozgarria bultzatzea da, bizitzaldi horretan jarrera baikorra eta ilusioz eta aukeraz betea izan dadin.

Las actividades que se presentan en este cuaderno pretenden responder a las necesidades, demandas y especificidades de todo el grupo de personas mayores de nuestro municipio, complementando la oferta de servicios que desde otras áreas municipales se dirigen también a la población mayor.

Se estructuran en diferentes programas con la finalidad de abarcar la heterogeneidad y diversidad de un colectivo cada vez más numeroso, en el que las personas de 60 y más años ascienden a 6.567 (22,73% de la población total) y las de 80 y más años representan el 5,80% (1.668 personas), entre las cuales, aproximadamente el 20% viven solas/os. El objetivo es favorecer un envejecimiento satisfactorio que permita en este periodo de la vida una actitud positiva, ilusionante y llena de oportunidades.